

Bizkaiko foru aurrekontuei 379 emendakin aurkeztu diete

Z. ZAMAKOLA / BILBO

PP, EAK eta EE-Talde Mistoak eta EAJK guztira 379 emendakin egin dizkiete Bizkaiko Foru Diputazioak 1992. urteari begira aurkeztu dituen aurrekontuei. PPK, EAK eta EE-Talde Mistoak osoareko emendakin baina aurkeztu dute.

Gainera, hiru alderdiek Diputaziozko zazpi sailek (Nekazaritza, Ongizate Soziala, Kultura, Sustapen Ekonomikoa, Ingurugiroa, Garraioak eta Hirigintza) aurkeztutako aurrekontu bakoitzari osoarekiko bederatzia emendakin aurkeztu dizkiete.

Atzo Anton Aurre Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak emaniko prentsaurrekoan azaldu zuenez, aurrekontu bakoitzari 37 emendakin gehiago aurkeztu dira, baina halere asko ez zirela eritzi zion, «legegaldiaren hasieran lauhunera arte ere heldu izan garelako».

Aurrek Batzar Nazionalerako Mahaiari hilaren 22a proposatuko osoarekiko emendakinak eztabaidatzeko Osoko Batzarrerako data izan dadin.

Batzar Nagusietako lehendakariak azaldu zuen osoarekiko hamabi emendakinak (3 aurrekontu guztiei eta 9 sail zehatzei) arazo barik aurkeztu direla eta beraz onartu egin direla. Emendakin arruntei ostera, 133k nolabaiteko akatsen bat eduki dute eta Batzar Nagusietako Mahaiak bihar arteko epea eman die akats horiek konpontzeko.

«Nire haserrea erakutsi nahi dut —adierazi zuen— hainbeste akats emendakinak behar besteko kontu barik egin direla adierazten dutelako».

EE: Atzo bertan Batzar Nagusietako «OSOTASUNIK EZA» EEko taldeak

(sektore ofizialekoak, Talde Mistoaren barruan), Bizkaiko Foru aurrekontuei egindako emendakinak azaldu zituzten.

Jose Luis Lizundia Batzar Nagusietako EE-ofizialeko eledunak

Hautsik Corcuera legea 'lurperatu' egingo du bihar

BILBO

Hautsi gazte erakundeak Corcuera legearen 'lurperatze' sinbolikoa egingo du bihar Bilbon. Antzerki-parodiak Bizkaiko hiruburu kaleak zeharkatuko ditu, arratsaldeko zortzietan Arriaga plazan hasi eta Santiago plazan amaitzeko.

Ekintza sinboliko horren bidez, Zutik (lehen EMK-LKI) alderdiko gazte taldeak «isiltasunaren erresuma sortu nahi duen lege honi arbueroik gogorrera erakutsi nahi diogu», jakin erazi zuten atzo igorritako ohar baten bidez.

Gazte erakundearen ustez, garai hauetan «hiritarren eskubideen arloan murrizketa» ematen ari da, eta lege honen bidez Gobernuaren eskuetan «piromano bati pospoloa ematea bezain tresna arriskutsua» ipintzen dela eritzi zion.

agertu zuen osoarekiko emendakina aurkezteko arrazoia aurrekontuok «programa bateraturik eza eta izaera estrategikoa emango dien izaera estrategikorik eza» izatea dela.

«Sail bakoitzak bere aurrekontua zehazten du, besteei kontutan hartu barik; askotan elkarren aurka ere badaude, eta ez du inolako lehentasunik zehazten», ziurtatu zuen EEko eledunak.



Jose Alberto Pradera.

SIMAL

Fiskalak Amedo Mon Bar kasuan ez prozesatzeko eskatu du

DONOSTIA

Baionako Mon Bar tabernako atentatuagatik zabaldu den GALEn kontrako hirugarren sumarioan ez ditzatela Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziak prozesatu eskatu du Entzutegi Nazionaleko fiskalak. Inoren kontrako frogarik ez dagoela eta sumarioa amaitutzat jotzeko eskatuta, idatzi bat igorri zion

fiskalak Baltasar Garzon epaileari joan den martxoan. Epaileak zenbait diligentsia egin ditu ordutik hona, baina ministeritza fiskalak dioenez, «inor kriminaliza dezakeen daturik ez dira ondorioztatu».

1985eko irailaren 25ean Mon Bar tabernara sartu eta tiroka hasi ziren lau pertsona, bertan zeuden lau euskal errefuxiatu hil eta Iparraldeko herritar bat zauritu zituzten.



LAGUN DUTEN GUZTIOI ZORIONAK



Zorionak PELLO GARCIA AMIANO Jn. ari, CAFE FORTALEZAK eskaintzen duen MENU DEL DIA saioan errezetarik hoberenagatik irabazitako MILIOI bat pezetako sariaren irabazlea.

SARITUEN ZERRENDA

Merche Ortega	BILBO	Milagros Lizarralde	ZUMARRAGA	Begoña Pertica Güenaga	ONDARROA
Cándida García	ZUMARRAGA	Alicia Ramirez Mendoza	VITORIA	María Benita Mojón	VITORIA
Erik Astoreka	LEKEITIO	Begoña Echebarrieta	BERMEO	Encarna Romero Medina	LLODIO
M.ª Jesús Boterillo Dosal	SANTURCE	Magdalena Rodríguez	BARACALDO	Altagracia Odrizola	ELGOIBAR
Maitte Llona Goitz	ERANDIO	Begoña Baza Méndez	BILBO	Carriona Miranda Matador	ARANGUREN
Begoña Zárraga Castillo	PLENCIA	Itxasne Valle	GÜENES	M.ª Fé de Carlos Orbañanos	LOGROÑO
Beatriz Rentería Lasanta	BASAURI	Antonia Pagalday Landazuri	BILBO	M.ª García Tejedor	GETXO
Rosa M.ª Berjón Marín	PAMPLONA	Charo Sánchez Castañares	LEGAZPIA	M.ª Paz Nuevo Martínez	LLODIO
Ana M.ª García Tellería	ANTZUOLA	Trinidad Aspiazú Zurimendi	MENAGARAI	Laura García Iturritxa	VITORIA
Elvira Diago Lara	VITORIA	Plácido Martínez Barrio	VITORIA	Juanjo Salazar Alegría	BILBO
M.ª Carmen Emilio Pehaut	VITORIA	M.ª Carmen Oiarbide Lasa	LAZKAO	Amaia Careaga Menica	BARACALDO
Emiliana Contreras	BILBO	Kandi Ceberio	OYARTZUN	Mariasun Larramendi	IRUN
Pilar Olano Aramburu	ANDOAIN	M.ª del Carmen Arco Díaz	MUSKIZ	Teresa Cuadrado González	BILBAO
Dolores Iriarte Ugarte	SAN SEBASTIAN	Conchi Guillin Souto	LLODIO	Irene Chorro González	SESTAO
Gloria Pérez de la Muela	VITORIA	M.ª Angeles Echevarria	ELORRIO	M.ª Gracia Pardo	PAMPLONA